Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

2198

EBAZPENA, 2011ko martxoaren 22koa, Garraio Azpiegituraren zuzendariarena, «Leioa-Urbinaga tranbiaren informazio-azterlana» jendaurrean jartzeko dena.

Azterlan hori Eusko Jaurlaritza Leioan eta Sestaon barna garraio publikoa egituratzeko burutzen ari den tranbia-planaren barruan sartzen da. Urbinaga eta Leioako geltoki intermodalen artean tranbiaren inguruko alternatiben azterlana idazteko kontratua Fulcrum enpresari esleitu zitzaion, eta 2003an ekin zion lan horri.

Tranbiak Sestao udalerrian egingo duen bideak epe laburrean etxebizitzak eraikiko diren eremuak zeharkatuko ditu. Galindo ibarreko lurretan, esaterako, «La Punta» izeneko proiektuaren barruan, 1.350 etxebizitza eraikitzeko asmoa dago. Era berean, La Naval lantegiaren lurretan ere badago egitasmorik, hirugarren sektoreko erabilerarako, eta horrekin ingurua neurri batean suspertu egingo da. Horiek horrela, Barakaldoko tranbiarekiko konexioa aurreikusi da, eta gaur egun azterketa-fasean dago.

Bilboko metropoli-trenbideak y-aren itxura dauka, eta ezkerraldetik igarotzen diren aldirietako trenbidelineak elkarren ondoan ez doazenez, ezinezkoa da Nerbioi ibaiaren bokaleko herrien artean konexio eraginkorra sortzea. Tranbiaren bigarren fasea hartzen duen azterlan honek itsasadarraren alde banatara dauden bi garapen-polo lotuko ditu, Leioako herrigunea eta EHU batetik, eta Sestaon itsasadarraren ondoan dauden lantegiak (Construcciones Navales del Norte eta Arcelor Mittal) bestetik, eta pentsatzekoa da bidaiari ugari erakarriko dituela.

Leioa-Urbinaga tranbiaren informazio-azterlanaren xedea da tranbia-linea definitzeko behar diren elementu guztiak ondo zehaztea, informazio-azterlan bati dagokion xehetasun mailarekin.

Tarte horretan bi geraleku jarriko dira: Rivas (inguruko industrientzat) eta Urbinaga (beste garraiobide publiko batzuekiko konexioa: metroa, aldirietako trena eta tranbia).

Proiektuaren idazketa Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek gainbegiratu dute, eta egiaztatu, teknikoki zuzena dela eta trenbideen alorreko legeria betetzen duela, bai eta Trenbide Sektoreari buruzko Erregelamenduaren 11. artikulutik 16.era bitartekoetan, eta indarrean dauden gainerako lege-xedapenetan ezarritakoa.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

2198

RESOLUCIÓN de 22 de marzo de 2011, del Director de Infraestructura del Transporte, por la que se somete a información pública el estudio informativo del Tranvía Leioa-Urbinaga.

Este estudio se enmarca dentro del Plan Tranviario elaborado por el Gobierno Vasco para vertebrar el transporte público a su paso por las localidades de Leioa y Sestao. Para ello, la empresa Fulcrum resultó adjudicataria de la redacción del Estudio de Alternativas de Tranvía entre los futuros Intercambiadores de Urbinaga y Leioa, comenzando el mismo en el año 2003.

El trazado del tranvía a su paso por la localidad de Sestao recorre zonas cuyos desarrollos urbanísticos se prevén a corto plazo. Este es el caso del proyecto «la Punta» de Sestao, en el que se van a edificar 1.350 viviendas en terrenos de la zona denominada Vega Galindo. A su vez, se proyecta un desarrollo en terrenos de la Naval, de carácter terciario que pretende regenerar parcialmente el área. Se ha previsto la conexión con el tranvía de Barakaldo, el cual está en fase de estudio.

La configuración en Y del Metro de Bilbao y el paso de las líneas de Cercanías por la margen izquierda de forma aislada imposibilita la conexión efectiva entre las localidades de las ribereñas cercanas a la desembocadura del Nervión. Este tranvía se enmarca dentro de la segunda fase para conectar las márgenes atravesando los polos generadores: Casco urbano de Leioa y la UPV y las factorías (Construcciones Navales del Norte y AcelorMittal) frente a la ría en Sestao, atrayendo un gran número de viajeros.

El objeto del «Estudio Informativo del tranvía de Leioa-Urbinaga» es la definición a nivel de estudio informativo de todos aquellos elementos necesarios para la definición del la línea del tranvía.

Se contempla la construcción de dos paradas: Rivas (industrias de la zona) y Urbinaga (interconexión entre distintos medios de locomoción: Metro, Cercanías y Tranvía…).

La redacción de este proyecto ha sido supervisada por los Servicios Técnicos de la Dirección de Infraestructura del Transporte, acreditándose que es correcto técnicamente y cumple la normativa específica en materia de ferrocarriles, así como lo dispuesto en los artículos 11 a 16 del Reglamento del Sector Ferroviario y demás disposiciones legales vigentes.

Organo honek eskumena dauka Jaurlaritzaren Kontseiluarentzat gordeta ez dauden trenbide-sareko proiektuak idatzi eta onartzeko, hala xedatuta baitago Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren 15.1.e) artikuluan.

Trenbide Sektoreari buruzko Erregelamenduaren 10.6 artikuluak ezartzen du, proiektua, behin betiko onartu baino lehen, hogeita hamar egun balioduneko epean jendaurrean izan beharko dela, nahi duenak alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan trazaduraren ikusmoldeaz, baldin eta ikusmolde horrek interes orokorreko alderdiei eragiten badie, eta, halakorik bada, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaz. Horretarako, 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua betearazteko araudia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretuaren 15. artikuluak berariaz xedatzen du ingurumen-inpaktuaren azterlana, proiektua egiteko edo baimena emateko prozeduraren barruan eta proiektuarekin batera atera beharko dela jendaurrera, eta prozeduran ezartzen diren bestelako txostenak ere eskatu beharko direla.

Beraz, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusirik, honako hau

EBATZI DUT:

Leioa-Urbinaga tranbiaren informazio-azterlana eta haren ingurumen-inpaktuaren gaineko azterlana jendaurrean jartzea, hogeita hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau azken aldiz argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Epe horretan, udal, elkarte eta partikularrek alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte jarduketa horren edukiaz, interes orokorreko aitortzeko arrazoiez, trazaduraren ikusmoldeaz eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaz.

Epe horretan, proiektua jendeak ikusteko moduan izango da, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz), Leioako eta Sestaoko udaletxeetan eta www.euskadi.net webgunean, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren atalean.

Hala adierazten da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko martxoaren 22a.

Garraio Azpiegituraren zuzendaria,
JESÚS MARÍA BENAITO VILLAGARCÍA.

Este órgano es competente para la redacción y aprobación de los proyectos de la red de Ferrocarril que no estén reservados al Consejo de Gobierno, según lo dispuesto en el artículo 15.1.e) del Decreto 607/2009, de 24 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

El artículo 10.6 del Reglamento del Sector Ferroviario establece que, previamente a su aprobación definitiva, el proyecto deberá quedar sometido a información pública durante un periodo de 30 días hábiles, al objeto de que puedan formularse alegaciones sobre la concepción global de su trazado, en la medida que afecte al interés general y, en su caso, sobre la evaluación del impacto ambiental. A estos efectos, por disposición expresa del artículo 15 del Real Decreto 1131/1988, de 30 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento ejecutivo del RDL 1302/1986, el estudio de impacto ambiental será sometido dentro del procedimiento aplicable para la autorización o realización del proyecto, y conjuntamente con éste, al trámite de información pública y demás informes que en aquel se establezcan.

Vistas las disposiciones citadas, y demás concordantes y de general aplicación,

RESUELVO:

Someter al trámite de información pública Estudio Informativo del tranvía Leioa-Urbinaga y su Estudio de Impacto Ambiental, al objeto de que durante el plazo de treinta días hábiles contados a partir del día siguiente al de la última publicación de la presente Resolución puedan formularse cuantas alegaciones se estimen oportunas por corporaciones, asociaciones y particulares, en relación con su contenido, con las circunstancias que justifican la declaración de interés general, la concepción global del trazado y la evaluación del impacto ambiental.

Durante el referido plazo el proyecto estará a disposición del público, para su examen, en la Dirección de Infraestructura del Transporte, Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, en Vitoria-Gasteiz, c/ Donostia-San Sebastián, n.º 1, en los Ayuntamientos de Leioa y Sestao, y en la página web de internet www.euskadi.net, en el apartado del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

Lo que se hace público para general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de marzo de 2011.

El Director de Infraestructura del Transporte,
JESÚS MARÍA BENAITO VILLAGARCÍA.